Ni, atzetik aurrera joango naiz Juan Carlosek ateratako gaiarekin, bereziki tranbiaren gaiarekin. Egia da hedabideetan agertu denak ez duela inongo baieztapenik, egun behintzat, guk gainera galdera idatzia sartu genuen udalean eskatzen ea informazio horiek nondik zihoazen, espero dugu erantzuna arin jasotzea; suposatzen dut horretan dabilela udal gobernu taldea, baina jakin nahiko genuke ea egia den eta ea zelakoa izango den. Baieztatuta badagoena eta, dirudienez, aurrerapauso bat dena da Legebiltzarreko aurrekontuetan jada ez dela tranbiaren partida agertzen, baizik eta autobus inteligentearen partida. Beraz, guk hor pozteko elementuak ikusten ditugu, guk defendatu dugun proposamena aurrera doalako. Sabino Arana oinezkoentzako izango da, ez da tranbiarik egongo eta Sabino Aranatik igaroko ez den alternatiba bat egongo da. Zalantzak ditugu horren garapenaren inguruan, eta bereziki zalantza Juan Carlosek bota duen bidetik doa: Udalak ordaindu beharko du? Beraz, hori argitzerik balego gaur, badakit puntu honetako gaia ez dela, baina eskertuko genuke.

Proposamenera etorrira, aipatu nahi dugu, eta Juan Carlosek oraintxe bertan aipatu du: Zein puntutan gauden jakitea guretzat ezinbestekoa da. Oraintxe bertan hasierako onarpen batean gaude, beraz, gaur erabaki beharreko bozka hasierako onarpenari emango zaion bozka (edo ez)

izango da. Guk horregatik gaur kontra bozkatuko diogu proposamen honi eta zergatik azalduko dugu.

Lehenik eta behin, denok ezagutzen dugu hasiera batean, uda baino lehen, udal gobernu taldeak proposamena mahai gainean jarri zuela eta parte-hartze prozesu bat martxan jarri zuela. Parte-hartze prozesu horretatik hainbat aldaketa txertatu direnean, guk uste genuen beste fase bat falta zela parte-hartze prozesu horretan: Parte-hartutako herritarrekin eta herritar guztiekin txertatuko aldaketak eta baztertutako proposamenak azaltzea. Uste genuen hori ezinbestekoa zela.

Bigarrenik, eta guretzat ezinbestekoa dena ezezko bozka emateko, hurrengoa da: ikusten badugu proposamen honen dimentsioa, proposamen honi “modifikazio partziala” deitzea gehiegizkoa iruditzen zaigu. Erdigune guztia eraldatuko duen HAPO aldaketa bati “modifikazio partziala” deitzea, bada bai, teknikoki horrela deitu beharko da, baina agian teknikoki ez litzateke modu eraginkorrena hori egitea. Guk uste genuen, eta HAPOa bere osotasunean aldatuko denean datorren urteetan, horrelako aldaketa bat, HAPOaren aldaketa osoan burutu behar zela eta hori izan zen guk aurkeztu genuen lehen alegazioa. Uste genuen erdigunea nola geratuko den balioztatzeko, inguruak nola diseinatuko ziren jakin behar zela. Eta orain egingo duguna da erdigunearen eraldaketa izugarri bat jakin gabe inguruko elementuek zein ordenazioaren menpe egongo diren, laster goazelako HAPOaren aldaketa orokorrera. Beraz, hor hainbat zalantza sortzen zaizkigu prozesu honi hasiera emateko.

Gero, gainera, elementu ezinbestekoa institutuaren partzela da. Dirudenez, orain erabaki da ez aldatzea. Egindako presioak erabaki aldaketa bat eragin du eta horretaz pozten gara. Baina ezin duguna ahaztu da, aurretiazko planifikazioan geratzen dela institutua eta beraz, HAPOaren aldaketari ezezkoa emanda, berdin geratuko litzatekeela ere. Beraz, guk hor mantentzen dugu ezezkoa, uste dugulako aurreko planifikazioan zeuden elementu batzuk bere baitan mantentzea positiboa dela, baina ez dugu onartzen bere osotasunean proposamen hau. Jazaelek aipatu du: badaude puntu batzuk aldaketa partzial baten prozesuan egin daitezkeenak, hezkuntzako pastillenak eta San Jose auzoaren modifikazioa, adibidez. Uste genuen horiek haien garapena eduki behar zutela, baina ez osotasunean egiten den modifikazio honetan. Uste genuen beste formularen bat bilatu behar zela horiek azkartzeko, baina Sakonetaren partzelaren aldaketak kezkatzen gaitu. Hainbat elementurengatik da: Lehena, kiroldegia. Aipatzen da Sakoneta botako dela, eta guk, hor, gure kontraktasuna adierazi nahi dugu; ez Sakoneta botatzearekin, baizik eta Sakoneta, erakunde moduan, suposatzen duen ekipamendua desagerrarazteagatik. Guk uste dugu, bota behar bada, bertan eraiki beharko litzatekeela beste kirol ekipamendu bat. Eta horrekin ez dugu esaten Pinosolon eraikiko den kirol ekipamenduaren kontra gaudenik, edo kirol instalazio berri baten kontra gaudenik. Uste dugu Leioaren tamaina duen herri batek kirol ekipamendu bat baino gehiago behar duela. Uste dugu zerbitzu desberdinak emango dituen kirol ekipamenduak edukitzea ezinbestekoa dela. Bai erdigunean, baita auzoetan ere, beti ahazten dugun elementua baita auzoetakoa. Uste dugu auzoek bere kirol ekipamenduak edukitzeko eskubidea dutela. Aipatu dira herri desberdinen kirol ekipamenduen adibideak, baina ondoan ditugun herriek, auzo desberdinei ere zerbitzua emateko, haien kirol ekipamendua nola banatzen duten ahazten dugu. Leioan, kontrara, kirol ekipamendu bakar bat eduki nahi da. Guk argi dugu eredu horrekin akats berdina edukiko dugula: Kirol ekipamendu erraldoi bat, laster berriro txiki geldituko litzatekeena, gure ustez. Beraz, eskatzen duguna da, eta horrela emendatzen genuen ekainean edo maiatzean aurkeztutako alegazioetan, kirol ekipamendua erdigunean mantendu behar zela, ez bere osotasunean, baina bai beste zerbitzu batzuekin batera, bai kultur eta bai kirol zerbitzuak emango lituzkeen Sakoneta bat proposatzea.

Etxebizitzari dagokionez, aipatu da sekulako etxebizitza igoera planteatzen dela aldaketa honetan. Guk alegazio bat ere bide horretan aurkeztu genuen. Badirudi etxebizitzaren kopuruaren igoerarekin aurrera jarraitzen dela. Beraz, gure ezetza ere hortik dator. Uste dugu estrukturalak diren hainbat elementu ez direla aldatzen HAPOaren eraldaketa honetan. Hortaz, ekainean



aurkeztutako alegazioei fidel mantentzen gara. Egia da pozten garela institutua erdigunean egiteko aukera mantentzen delako, egia da gaurko modifikazioan ere institutua goian egiteko aukera mantentzen dela, hau da, Barandiaran ondoko pastilla ere handitzen dela, eta hori horrela doa gaurko modifikazioan. Beraz, hor ere kezkatuta gaude, oraintxe bertan institutuaren etorkizuna ez dagoelako guztiz argi, bata edo bestea izateko aukera baitago. Horrek ere kezka sortzen digu.

Eta bukatzeko, etxebizitzaren ereduak. Guk argi eta garbi beti defendatu izan dugu alokairuzko etxebizitza soziala bultzatu behar dela. Uste dugu plan honetan etxebizitza eredu horretarako bideratutako den kopurua txikiegia dela.

Hortaz, hasierako prozesu honetan ezezkoa emango dugu, eta espero dugu prozesua martxan jartzen bada, behintzat prozesuaren baitan, aldaketak txertatzeko aukera zabalik mantentzea, eta ea aldaketekin hobetzen dugun gaur hona ekartzen den proposamena. Gure bozka ere aldatzeko aukera mahai gainean jartzen dugu.

### **Esnatu Leioa Udal Taldeko Rubén Belandia Fradejas jaunaren esku hartzea.**

Momentu honetan mahai gainean daukagun Hirigintza plangintza, aurreko udal gobernuak aurkeztu zena baino askoz hobea dela esan dezakegu. Hori, galdeketa edo parte-hartze prozesuaren ondorioz izan da. Batez ere, hezkuntza komunitatearen adierazpena izan da nagusia eta erabakigarria izan da aldaketarako. Udal gobernuak baita ere fin aritu da jendeari entzuteko eta aurreko planteamenduak aldatzeko gaitasuna izan du, eta hori nabarmentzekoa da. Beraz, institutuaren eraikina erdigunean mantentzea eta institutu bateratua izatea, hau da, eraikin bakarrean egotea eta erdigunean izatea, batez ere, gurasoen elkarrean eta guraso mugimenduen fruitua izan da. Hor ere ikusten da guk hasiera batean planteatzen genuena baino askoz hobea dela orain proposatzen dena. DBH mantentzea eskatzen genuen ezinbesteko edo gutxieneko baldintza bezala, eta gurasoekin egon ondoren, erabat konbentzitu ginen eta uste dugu askoz hobea dela institutua eraikin bakarrean eta erdigunean egotea.

Beste alde batetik, Sakonetaren ordezkari momentu honetan proposatzen den eraikina, hasiera batean proposatzen zena baino zabalagoa da. Lehen, bi solairuko eraikina proposatzen zen, udan merkatua eta beste solairu bat. Une honetan lau solairuko eraikina planteatzen da eta hor kirol, kultur eta gizarte ekintzak uztartzeko planteatzen da. Hori ere positiboa da, nahiz eta nahikoa ez izan guretzat.

Orain, alde ilunekin sartuko naiz. Izan ere, guretzat gabeziak dauzka proposamen honek. Lehenengo eta behin, gogoratu behar dugu, erdigunea eraikitzeke hirugarren saiakera dela esan dezakegula. Avanzadaren ingurua erdi estaltzearekin pentsatzen zen, bere garaian, erdigunea sortuko zela, edo herrialdeak gozatzeko moduko esparrua sortuko zela, eta gero ikusi dugu hori ez dela horrela izan. Gero gizarte etxea deitutakoa, orain Kultur Leioaren inguruan dagoen etxaldea, beste alde batetik Kultur Leioa han jarrita eta laranjondo zuhaitzak dauden etxeak eraikita dena txikiegi geratu zen erdigunea izateko. Eta horretaz gain, erabaki zen Estartetxe Kanean etxebizitza mordera eraikitzea. Gogoan dugu San Juanak egiten zirela gero eraikinak egin ziren esparruetan, eta beraz, hor ere aukera nabarmena galdu zen erdigunea lortzeko. Hortaz, arazo bat daukagu. Ez daukagu erdigunerik nahikoa saiatu ez garelako, edo egindakoak porrot nabarmena izan direlako.

Bigarren arazoa plangintza honetan etxebizitza asko, gehiegi gure ustez, egiten direla da. Indarrean dagoen plangintzarekin konparatuta, 213 etxe gehiago eraikiko dira. Hori, gure ustez, gehiegizkoa da. Gainera, denak libreak egin nahi dira. Jakina, udalerrri honetan, plangintza edo garapen urbanistiko gehienak etxebizitzak eraikitzeari lotuta egon dira. Plangintza gehienak etxebizitza libreak eraikiz finantzatu dira. Horren ondorioa orain sufritzen dugu: Leioa agertzen da etxebizitza garestienak dituen udalerrien artean. Garestienak, hemen, Leioan daude, justu Getxoren eta Bilboren aurretik ere.

Beste arazoa da Sakoneta botatzea. Guk onartzen dugu edo errespetuz hartzen dugu udaleko arkitektoak eman duen iritzia, baina medikuekin egiten den bezala, bigarren iritzi bat eskatzeko eskubidea aldarrikatzen dugu. Hortaz, beste aditu batzuen iritzia eskatuko dugu, behin betiko erabaki bat hartzeko Sakoneta botatzeko edo eraikina birmoldatzeko. Gure ustez, etorkizuneko kirol instalazioei dagokienez, Leioak izan behar duen egitura ezin da erdigunetik kanpo eta auzoetatik kanpo eraiki. Guri ez zaigu gustatzen polikiroldegi handi bat egiteko aukera. Badago beste eredu bat, Gasteizen erabiltzen dena, gizarte etxeak deitzen diete, auzoetan dauden funtzio anitzeko eraikinak dira, eta eraikin berean kirol instalazioak, kultur instalazioak eta gizarte instalazioak uztartzen dira Gasteizen dauden gizarte etxeetan. Hori erdigunean, ez hainbeste kulturari lotutako proposamena edo ariketak, Kultur Leioa hemen dagoelako, baina bai Lamiakon daukagun eremu publikoan eraiki daiteke. Bigarren eraikin horretan kirol, kultur eta gizarte instalazioak jarri ahal dira. Beraz, hortik joango litzateke gure proposamena horri begira.

Proiektuari beste akats batzuk ikusten dizkiogu. Lehenengoa da, ez dugula ulertzen zergatik dagoen hainbeste interes Mercedarias ikastetxeari lursail bat eskaintzeko. Orain erabakita institutua oraingo aparkamenduaren eremuan eraikiko dugula edo nahi dugula, ezin da ulertu horren ondoan dagoen beste esparru bat saltzeko asmoa. Txostenean esaten da esparru hori baliagarria izan daitekeela Mercedarias ikastetxearen eraikigarritasuna handitzeko. Ezin dugu hori onartu. Hori eremu publiko bat da, institutu bat eraikiko dugun eremu baten ondoan dago eta hor interes publikoko gauzak egitea posible da. Diotenez, horren aldapa gehiegizkoa da, baina hain justu, aldapa aprobetxatuz, beste leku batzuetan txirrista handiak egiten dira. Beraz, herriarentzat eta, bereziki, ondoan egongo den ikastetxe publikoari laguntza emateko gauzak egin daitezke esparru horretan. Ondorioz, horren kontra gaude eta esparru hori publikoa izaten jarraitzeko proposamenak egingo ditugu.

Beste alde batetik, ez gaude ados Barandiaran Goikoaren inguruan dagoen eremurako proposatzen den aldaketarekin. Momentu honetan, Eusko Jaurlaritzak oraindik ez du erabaki institutua non eraiki. Udaletxeak gaur adieraziko du non jarri nahi dugun. Beraz, ezin dugu inolako aukerarik utzi beste alternatibak indartzeko. Hortaz, uste dugu hau ez dela momentua Barandiaran Goikoaren inguruko eremuak aldatzeko. Gero, denok nahi dugun moduan aldatzen bada, edo erabakitzen bada institutua erdigunean eraikitzea, izango dugu institutuaren inguruan dauden eremu horiek, Goikoaren inguruan dauden eremu horietan aldaketa egiteko aukera. Baina momentu honetan, nahiz eta esparru hori ez den nahikoa institutuaren eraikin gehiago egiteko, ezin dugu lagundu beste edozein alternatiba indartzeko aukera ematen duten neurriak hartzen.

Ondorioz, aipatutako arrazoi guztiak direla eta, gure kontrako botoa iragartzen dugu eta oraingo prozesuan proposamenak ere egingo ditugu gauzak aldatzeko. Espero dugu prozesu honetan udal gobernua fin jarraitzea eta aldaketak onartzen jarraitzeko asmoa izatea plangintza honi begira. Izan ere, institutuari begira mugitu da, bai, baina adibidez, Lamiakoren plangintzari begira, guk aurkeztu genituen aldaketa proposamenak, horren inguruan lan egin zuen arkitekto taldearekin kontrastatuta zeuden eta ez zituzten txarto ikusten guk egindako ekarpenak, baina denek paperontzian amaitu dute.

Proposamen sendoak egingo ditugu orain ere, eta espero dugu horiek aurrera ateratzea.

**Euzko Abertzaleak taldeko Iban Rodríguez Etxebarria jaunaren esku hartzea.**

Arratsalde on.

Nik uste dut gaur egun garrantzitsua dela modifikazio baten aurrean gaudelako eta lehen Jazaelek esan duen moduan, agian ez da azken aldia egin den bakarra. Nik uste dut herria asko eraldatu dela eta hau ez dela izango aukera bakarra. Askok izan dira bidean egin diren eraldaketak eta askok bidean ere auzoak hobetu dituzte. Garrantzitsua da benetan badelako garaia Leioak hiri erdigune dezente bat edukitzeko. Askotan entzun dugu ez daukagula erdigunerik, jaia egiteko lekurik, eta orain proposamen bat ekartzen denean, denak dira zalantzak, kexak edo protestak.

Niri pena ematen dit, benetan, bai Esnatu Leioak eta bai EH Bilduk kontrako bozka ematea hasierako proiektu honi, baina uste dut gauzak argitu egin behar direla eta ondo esan behar direla. Orain ez da proposamenak egiteko garaia. Hau da, gaur hemen onartzen bada, hasierako onarpena emango zaio, eta ez da proposamenik egiteko garaia, orain emendakinak egiteko garaia da. Desberdinak dira.

EH Bildurentzako inoiz ez da egiten dugun parte-hartzea nahikoa. Inoiz ez. Egiten badugu, gutxi delako; gehiago egiten badugu, oraindik ere gutxi delako; ez badugu egiten, ez dugulako egiten. Orduan, gutxienez pozten naiz, askotan esan zaigulako *“el equipo de gobierno del rodillo”* garela; eta orain egin dugun guztia, zuek aurkeztutako gauzak dira, antza denez! Batzuk izango dira, baina ez bere osotasunean. Askotan egin dugu berba horren inguruan. Zuek Sabino Arana oinezkoentzako egiteko proposatzen zenuten, baina hori ez da guk aurkeztu duguna; zuena askoz gutxiago zen.

Gazteleraz jarraitzen du:

Entiendo que, bueno, como a nosotros ya nos dan porque sí en redes sociales o en lo que sea, pues queréis seguir dándonos, pero, claro, hay expresiones que no son del todo correctas. Cuando dice que hace muchos años se trataron, Jazael, cuando decías que hace muchos años la decisión era ir arriba y demás, bueno, no tantos años, yo llevo ya bastantes en el Ayuntamiento, seis, que son muchos, pero eso lo he vivido yo estando en el Ayuntamiento. Entonces no son tantos años. Sí que es verdad, y eso lo hemos reconocido cuando nos hemos juntado con otros agentes del ámbito educativo de Leioa, que al parecer no todos los aitas y amas tenían esa información, eso es así, pero bueno que, paso atrás, y hemos tenido cintura. Decía Rubén, hombre, es que cuando tú crees en algo, tú propones algo, y estamos hablando de traer el instituto al centro, que es una modificación que se hace precisamente por un Equipo de Gobierno anterior en este Ayuntamiento, dices pues, hombre, cuando lo verdaderamente lo crees ese giro en la cintura es más sencillo, que no quiero decir que no haya que tenerlo en otros momentos, pero, claro, aquí cada uno también sabemos a lo que jugamos y tenemos nuestras convicciones, entonces pues está muy bien.

Lo que sí que me ha extrañado es que ahora el PP venga pidiéndonos más VPO en Leioa, o sea, me parece muy bien pero, claro, teniendo en cuenta las políticas que el PP ha tenido a nivel nacional pues, hombre —políticas de vivienda, me refiero—, cuando menos es de extrañar. Porque, claro, a este Equipo de Gobierno y a Equipos de Gobierno anteriores se nos pueden achacar muchas cosas, pero que no se hayan hecho VPO en Leioa no, porque si se hiciera un *ranking* de zonas en Euskal Herria comparando población, número de habitantes y VPO que se han realizado, pues, hombre, yo creo que en ese *ranking*, al igual que en el de la vivienda cara, estaríamos muy altos. De hecho, dentro de poco vamos a tener otras 101 viviendas para alquiler social para vecinos y vecinas de Leioa que este Ayuntamiento logró conveniar con el Gobierno Vasco por el cual, renunciando nosotros a unos derechos que en ese momento nos correspondían, el Gobierno Vasco conveniaba el realizar esas viviendas. Cuando no te toca gestionar es complicado, o sea, quiero decir que es más sencillo hacer enmiendas, es más sencillo criticar, vamos a dar todos, no vamos a cobrar a ningún vecino ni un duro, pero, claro, cuando cuando después hay que realizar y hay que pagar la luz y hay que pagar el alcantarillado, hay que pagar cositas, pues, claro, el no tener el dinero también nos perjudica.

Y después, sí que es verdad, los apartamentos dotacionales son algo a valorar —creo que no es el lugar idóneo, pero bueno—, pero tenemos otras parcelas, tenemos otros desarrollos que se están llevando a cabo o que se van a llevar a cabo en los que ese tipo de posibilidades de convenios con Gobierno Vasco para que pueda realizar ese tipo de actuaciones se pueden llevar a cabo. Y, es más, nosotros con directores del Gobierno Vasco estamos ya, hemos hablado sobre el tema, y está claro también que aquí ha habido mucha vivienda en propiedad y ahora la apuesta

tiene que ser por la vivienda en alquiler social, o sea, ya vamos a sacar 101, salieron no hace mucho también en Tellería otras cuantas, en su día con el PERRI en Lamiako también hubo otro puñadito, pues bueno, a ver si conseguimos que todo aquel vecino o vecina de Leioa que quiera, pueda quedarse a vivir en Leioa, o que pueda salir por lo menos de la casa de sus aitas, o de su aita o de su ama.

Te has anticipado a problemas que pueden venir con los *cargas y descargas* y demás. No es algo referente a lo que hoy aprobamos aquí, pero bueno, ya que has mencionado lo del mercado; una cosa de la que se ha hablado es que el mercado fuera en una de las plantas de ese edificio municipal que se pretende instaurar ahí, cerquita de Sabino Arana, que tiene una carretera que le pasa al lado y que va a tener un *parking* subterráneo. Y entiendo que, en caso de tener este tipo de actividades, pues tendrán unos accesos y unos *carga y descarga* adecuados al uso, pero bueno, no es el momento; el momento será cuando se desarrolle el proyecto de urbanización y demás.

Y ya, por contestarte a lo último que has comentado respecto a que no os hemos informado, de que no habéis sido informados de los 9,2 millones de euros que tenemos que pagar al Gobierno Vasco, claro que no os hemos informado porque nosotros no hemos conveniado nada con el Gobierno Vasco. Nosotros no hemos llegado a ningún acuerdo con el Gobierno Vasco y lo que este Equipo de Gobierno tiene claro es que si a día de hoy tenemos un convenio en el que no tenemos que poner un duro, y lo tenemos firmado y en vigor, lo que sí que no vamos a hacer es firmar otro en el que tengamos que pagar 9,2 millones de euros. Eso sí que lo tenemos claro, porque ante todo, lo que tenemos que hacer es defender a los vecinos y vecinas de Leioa y el dinero de los vecinos y vecinas de Leioa. Y menos, encima, teniendo aprobado como tenemos la nueva ruta del autobús urbano que queremos implementar en el municipio, porque este bus eléctrico inteligente a los vecinos y vecinas de Leioa no les iba a solucionar gran cosa, iban a aumentar las frecuencias pero no les iba a solucionar gran cosa. Seguimos teniendo ese debe de enlace del metro a la UPV, pero está claro que lo que no vamos a hacer es gastar 9,2 millones de euros de los vecinos y vecinas de Leioa en este convenio, porque con 9,2 millones de euros podemos aumentar la línea de autobús urbano para muchos años a la Universidad, pero nosotros.

Euskeraz jarraitzen du:

EH Bilduk dio “*guk beti proposatu duguna aurrera doa*”. Bueno, baliteke. Diote ea zelan egin daitekeen horrelako modifikazio partzial bat. Bada, erraza da eta, gainera, azalduta dago. Modifikazioak egin behar dira egin behar direlako, beharra ikusten delako. Kasu honetan beharra ikusten dugu erdigune hori ahal bezain laster eraberritzeko aukera izateko, eta horregatik jo dugu modifikazio partzial baten bidetik. Hau da: HAPOaren berrikuspena ere laster hasiko da, eta badakizue horri buruz ere bagaudela pleguak egiten eta laster hasiko dela, baina jendeari esan behar zaio HAPO baten berrikuspena gutxienez bost urte direla dena lehenengoan egiten bada. Hemen daukagun azkeneko oroitzapena da hamar urte inguru eman genituela HAPOaren berrikuspena egiten. Beraz, hamar urte egon behar bagara zer egin ahal den jakiteko itxaroten, uste dut benetan ez dela oso bideragarria izango. Gainera, zuen aldetik ere bai askotan eskatu duzue erdigune hori; bada, ez da hain beharrezkoa izango hamar urteko epe batera botatzen badugu. Hamar urte gehi gero horren atzean dagoen guztia, hau da: partzialak eta egin behar diren beste tramite guztiak. Beste hiru, lau, bost urte lasai lasai pasa daitezke. Hortaz, nik, behintzat, ez ditut kritika horiek onartzen.

Beste gauza batzuetan ados egon gaitezke edo ez. Adibidez, etxe gehiegi egiten direla edo ez direla egiten. Leioaztarrak garenok edo Leioan beti bizi izan garenok ikusten dugu, lehen zelai pribatuak zirenak, gaur egun zelai horietako asko etxebizitzez inguratuta daudela. Egia da. Baina egia da baita ere, azkeneko urteetan, Leioako hazkundera, egin diren hainbat etxe egin eta gero, gutxi gorabehera, urtero berrehun pertsona ingurukoa dela. Ikusita zenbat VPO egin diren

hemen, ikusita leioaztar askok bertan gelditzeko aukera izan dutela eta baita beste leioaztar askok ere, kanpoan egon direnak, etortzeko aukera izan dutela, gehi haien neska-laguna, mutil-laguna edo familia osatu dutela, bada, benetan urteko berrehuneko hazkunde hori ez dugu gehiegizkoa ikusten. Uste dut beste herri batzuek duten egoera larrian gaudenik.

Gero, beti esaten da VPO gehiago, alokairuan etxebizitza gehiago behar direla, eta bai, beti esaten dut oposizioan egonda hori erraza dela. Eta gu gestio aldetik zentzudunak izango ez bagina, eta ez dut esaten guk egiten dugun moduan kudeatu behar denik, modu asko daude eta bakoitzak berea edukiko du, baina guk uste dugu ezin dugula utzi etorkizunerako inongo zulorik. Hau da, lehen Juan Carlosek argi esan du:

Gazteleraz jarraitzen du:

...gestionar vivienda pública es muy complicado para los Ayuntamientos. ¿Quién la gestiona? La gestionan las ciudades de provincia o ciudades con un número importante de habitantes que tienen otros ingresos, bastantes más de los que nosotros tenemos, o tienen unos presupuestos muchísimo más grandes que los que nosotros tenemos. Claro, en esta modificación que vamos a realizar hay una gran parte que es suelo municipal, esto es, es suelo de todos los vecinos y vecinas de Leioa. Esta modificación supone hacer 90 realojos por un lado, más 70 por otro, esto es, 160 realojos. Si encima de estos 160 realojos le metemos todavía más carga de vivienda protegida, corremos el riesgo, por un lado, de que no se pueda desarrollar, porque, claro, este Ayuntamiento no tiene una constructora, este Ayuntamiento no tiene una empresa que le gestione todo esto.

Entonces, ¿qué es lo que tiene que hacer el Ayuntamiento con estos terrenos, que es lo que la ley le dice que en su caso puede hacer? Pues una de las cosas es sacarlo a subasta pública; entonces de ahí este Ayuntamiento va a recoger unos ingresos y esos ingresos son los que después se van a poder utilizar a la hora de poder hacer un polideportivo o a la hora de poder hacer unas instalaciones o a la hora de mantener servicios como los que estamos poniendo en marcha, como el autobús urbano, que cuestan mucho dinero y que no son servicios —como no lo tienen que ser tampoco los servicios públicos— viables, o sea, no dan dinero. Pero, claro, es muy fácil decir: *hacemos esto, hacemos lo otro, no, hacemos una empresa, no, todos vamos a hacer públicas todas las contratas que tenemos, bien, y no hacemos vivienda...* Y entonces, ¿de dónde sacamos?, porque, claro, después proponemos subir un poquitín los impuestos y hay algunos partidos que encima, claro, estando en la oposición es muy sencillo, dicen, *¿cómo vamos a hacer esto?, ¿cómo vamos a hacer...?* No. ¿Y de dónde vamos a sacar? O sea, no queremos hacer casas, que es de donde más dinero sacamos, pero es que lo saque el Equipo de Gobierno, lo sacan los vecinos y vecinas de Leioa. Entonces, claro, yo entiendo la labor que se tiene que hacer desde la oposición y muchas veces para visibilizarse hay que decir cosas, si nos dicen que no nos van a cobrar impuestos y que, aparte de no cobrarnos, este Ayuntamiento nos va a pagar 1.000 euros a cada uno, pues, claro, todos aplaudimos, pero son cosas irreales y son cosas que desde luego si te toca gestionar y lo haces estás cometiendo un grave error.

Respecto al instituto, claro, decía Bildu que hemos echado atrás lo que habíamos dicho por la presión que hemos tenido. ¿La misma presión que se tuvo por parte de alguna gente para que el instituto fuera arriba? No, porque esa presión no ha sido manipulada, esa presión ha sido la de vecinos y vecinas de Leioa que han querido dar su opinión, y la hemos escuchado, y la otra presión, que sí que hubo en su momento, sí que era interesada y manipulada. Entonces a mí no me gusta decir que la gente me presiona, cuando un vecino o una vecina te dice algo, te lo dice, porque verdaderamente cree que es lo mejor para él o ella, y nuestra responsabilidad es decirle sí o no y explicarle por qué sí o no. Y está claro que si le decimos que sí va a estar contenta y que si le decimos no, no va a estar contenta, pero a mí desde luego me han enseñado a ser responsable y

ser consecuente con lo que decimos y eso es. Y desde luego esta presión, si esto es presión, ¿qué era lo otro, entonces?

Y, claro, cuando decimos que no, claro, por ejemplo ahora decir que no a esta modificación y quedar mal con los del barrio San José pues claro que nos duele, más cuando tenemos amigos y amigas en ese barrio, pero no es así, es que la modificación de San José no se podía hacer si no se hacía el resto, porque la parcela que ellos tienen no cumple algunos de los estándares. Entonces si no se cumplen los estándares no se puede hacer modificación, y los estándares se cumplen precisamente por el resto del espacio.

Euskeraz jarraitzen du:

Sakoneta bota, beste bat eraiki, Pinosolokoa ere bai... Bueno, orain bi bakarrik dira. Bere garaian, honetaz berba asko egin dugu, auzo bakoitzeko polikiroldegi bat zen. Bai, jakina, auzotarrei galdetzen badiezue, argi dago baiezkoa emango dizuetela. Baina hori ez da ekonomikoki bideragarria. Ez da ekonomikoki bideragarria gune asko edukitzea. Rubenek Gasteizen eredia aipatzen zuen. Jakina, beti jartzen baditugu eredutzat hiriburuak... Gasteizek Leioak ez dituen diru-sarrerak ditu, Leioak sekula edukiko ez dituenak. Bakarrik Euskadiko hiriburua izateagatik dituenak... Zera, Leioak agian lortuko ditu, oxala! Baina ez da egia. Begiratu Gasteizek daukan aurrekontua eta guk daukaguna. Begira: EH Bilduk aurreko urtean esan zuen, emendakinak eztabaidatzen egon ginenean eta haiekin negoziatzen, benetan zaila dela Leioan emendakinak egitea, ez dagoelako dirua nondik kendu, dena delako garrantzitsua. Jakina, dena da garrantzitsua. Gero beste demagogia batzuk daude, lehen komentatu ditugunak... bai, hortik kendu daiteke. Baina, tira...

Amaitzeko, Rubenek Mercedarias aipatzen zuen. Nik ez dakit zergatik beste ikastetxeen inguruan egin daitezkeen horrelako moldaketak eta Mercedariasetan ez. Ez dut ulertzen. Onerako edo txarrerako, Mercedarias ere herriko motor bat da. Bide batez, hau esatea ere gustatuko litzaidake: Udaletxetik egiten diren ekimenetan gehien parte hartzen duen ikastetxea da. Jartzen den esparrua oso eskasa da eta haiek bakarrik onura ditzake, ez institutua. Institutuak badu jartzeko lekua, eta aldatu hori, maldatsua den zonalde hori, norbait lagunduko badu, Mercedarias da. Dena dela, esan dugun moduan, hori ez dago ikastetxe horretarako gordeta, enkante publiko batera irten daiteke eta bertan gehien jartzen duenak eramango du. Zuk diozu txirrista batzuk jarri ahal direla hortik. Ideia bat da. Baina zergatik ez ditugu jartzen ere beste ikastetxeetako zonalde horietan ere bai? Txirristak jartzeko aukera ere badago bertan. Ez dut ulertzen kasu konkretu honetan ezezkoa ematea.

Orain bai, amaitzeko, esan duzu.

Gazteleraz jarraitzen du:

que tampoco estabais de acuerdo con la ampliación en la zona de Barandiaran....bueno, dice: *no, podemos esperar y después se verá*. Bueno, podemos esperar o no porque si no damos este paso y el dueño pide la reversión de ese suelo, como nosotros no hemos mostrado un interés público en ello, automáticamente revertiría en su propietario —en este caso creo que es propietaria—, porque eso viene todo del plan de carreteras que se hizo por atrás. Entonces el miedo que se nos trasladó a nosotros es que el Gobierno Vasco necesitaba ese espacio para poder hacer la ampliación, no, en los últimos bocetos que estaban viendo allá por mayo o así no era necesaria esa ampliación para poder hacer la ampliación arriba. Entonces lo que nosotros no podíamos hacer era renunciar a algo que nosotros podíamos hacer con el suelo, el Ayuntamiento, esto es, que los vecinos y vecinas tengan más patrimonio en Leioa y que en un futuro nos pueda servir para ampliar otro tipo de instalaciones que esperemos que puedan llegar a venir aquí, como pueden ser más FP o más módulos de Formación Profesional. Entonces nuestra apuesta sigue

siendo que el instituto completo venga al centro y por eso en uno de los puntos que viene *a posteriori* viene eso, pero lo que no podemos hacer es limitarnos a nosotros mismos.

**Grupo Popular de Leioa Taldeko Jazael Martínez Esteban jaunaren esku hartzea.**

Muchas gracias, señora Alcaldesa. Voy a intentar ser muy breve. Lo primero, pues bueno, quería participar de la puntualización que ha hecho el Teniente de Alcalde respecto a que es preocupante la fijación que parece que tienen algunos grupos de este Ayuntamiento con algunos centros que cada vez que hay algún evento, cada vez que hay algo, como puede ser la semana pasada, el día 25, las concentraciones, son los que siempre están, siempre aportan, siempre apoyan, y no lo entendemos.

Luego sí me gustaría decirle también al Teniente de Alcalde que yo no sé qué le ha dado hoy al Equipo de Gobierno con lo de que hay público. A mí me gustaría recordar que todos los plenos se graban, están en YouTube, entonces cualquiera de las personas del público puede meterse en YouTube cuando salga de aquí —no creo que lo hagan— cualquier día y verán que el tono de los debates es el mismo que estamos teniendo hoy. La diferencia es que el Equipo de Gobierno quiere coger ese globo para decir así salgo de ello y entonces, pues bueno, hoy no pero cualquier día se puede ver.

Yo quiero hacer hincapié en dos aspectos: uno, que me parece que ha pasado así, velado, pero que me parece cuando menos preocupante, que es lo relacionado con la información que salió publicada en *El Correo* sobre el bus eléctrico. Yo tengo aquí el artículo de *El Correo* y pone literalmente, lo voy a leer: “*El proyecto del departamento de Infraestructuras del Gobierno Vasco es conectar el metro con la UPV de Leioa a través de una flota de autobuses eléctricos de última generación, descartando el tranvía. Según lo que avanzaron los portavoces del departamento que dirige Arantxa Tapia — a la que creo que el Equipo de Gobierno conoce bien—, la puesta en marcha de esta infraestructura requerirá una inversión mínima de 26,2 millones de euros sin impuestos, de los que 16 se destinarán a obra civil*”. Y seguido dice: “*El Ayuntamiento de Leioa asumirá el 35% de esta inversión, según fuentes del Ejecutivo*”.

Me preocupa mucho que, siendo los mismos partidos los que conforman el Gobierno Vasco y este Equipo de Gobierno, en el Gobierno Vasco tengamos al Partido Nacionalista Vasco y el Partido Socialista diciendo cómo va a ser este proyecto, cómo se va a distribuir el gasto y todo, y el Equipo de Gobierno de este Ayuntamiento hoy nos diga que ellos no saben nada, que ellos no han acordado nada, que no han pactado nada. Pero lo que me preocupa realmente de todo esto es que el Equipo de Gobierno de este Ayuntamiento no salga a los medios de comunicación enmendando la plana al Gobierno Vasco y diciendo: *oiga, eso que ustedes dicen no es cierto, aquí no ha habido ningún acuerdo*. Lo que pasa es que no lo vamos a ver porque es decir a nuestro propio partido que lo que están diciendo no es verdad, o quedar nosotros en evidencia, u otra cosa que puede ser, que es que el medio de comunicación se lo haya inventado todo. Por lo tanto, también me parece grave que este Equipo de Gobierno lo diga en este Pleno y no haga unas declaraciones públicas diciendo: *oiga, ustedes han inventado eso*, porque si algo no es cierto hay que ser valiente y decirlo.

Quiero hacer también referencia a la crítica que hace el Equipo de Gobierno, en este caso en voz del Teniente de Alcalde, a que desde el Partido Popular pidamos más VPO y a que hablemos de que en Leioa no se ha hecho. No, yo no he dicho en ningún momento que en Leioa no hayamos hecho VPO, claro que se han hecho, y las han hecho el Equipo de Gobierno precedente a éste que estaba formado por miembros del mismo partido. Yo no he dicho eso, lo que he dicho es que, en este proyecto, echamos en falta más VPO, y una de las propuestas que hemos realizado, es la de apartamentos dotacionales. Dice el Teniente de Alcalde que siempre hablamos de ciudades grandes; yo voy a poner un ejemplo aquí de una ciudad que es más pequeña que Leioa, concretamente la mitad, que es Ermua, que es un Ayuntamiento que está gobernado por el Partido Socialista, pues en ese Ayuntamiento en las anteriores legislaturas, en

coalición con el Partido Popular, se hizo lo siguiente: el Ayuntamiento era poseedor de unos terrenos, pero, como bien ha dicho el Teniente de Alcalde, un Ayuntamiento no puede ejecutar esas obras. Es cierto, no ha mentido. ¿Qué hizo entonces? Hizo un convenio con el Gobierno Vasco por el cual el Ayuntamiento le cedía esos terrenos para hacer apartamentos dotacionales y el Gobierno Vasco construyó apartamentos dotacionales. Población de Ermua, 16.000 personas; población de Leioa, más de 30.000. Por lo tanto, sí es posible que en municipios que no sean grandes ciudades se lleven a la práctica y se lleven a cabo este tipo de medidas.

Y luego, claro, el portavoz del Partido Socialista nos trae ejemplos como Lleida, que dice que tiene una de las mayores zonas peatonales; nos habla de Vigo; podemos seguir hablando de Bilbao, del casco viejo, de la Plaza Mayor de Madrid, pero es que parece que se le olvida que estamos en Leioa y parece que no se ha dado una vuelta por el centro del municipio para ver en qué estado se encuentra —desgraciadamente— el comercio local de Leioa, sin necesidad de irse a Vigo ni a Lleida ni a Barakaldo. El comercio de Leioa no está viviendo sus mejores momentos y necesita de todo el apoyo institucional para que eso se revierta. Y no hemos dicho que estemos en contra de la peatonalización, qué va, todo lo contrario, a todos nos gusta pasear con nuestras familias por zonas peatonales sin tener que mirar, como bien decían, a un lado y a otro, sin tener que preocuparse de coches ni de humos. No, no hemos dicho eso, lo que decimos es que tal y como está diseñado este proyecto se va a favorecer un tipo de zona peatonal que en nuestra humilde opinión —repito, es nuestra humilde opinión y veo que nadie la comparte— ese tipo de estructuración de las residencias favorece la creación de negocios hosteleros frente a otro tipo de negocios. Yo no he hablado de cargas y descargas ni es que sea un visionario —ya es la segunda vez que me acusan de que veo cosas del futuro, pero luego nunca acierto a la lotería—, no es lo que queremos decir. Lo que decimos es que ese tipo de zonas no favorecen el desarrollo del comercio y sí el desarrollo de la hostelería. No es bueno ni malo, es, ya está, y es lo que nosotros hemos visto y ese es el motivo por el que vamos a votar abstención. Y también, pues oye, me parece sorprendente que, siendo el único grupo de la oposición que se va a abstener, seamos el grupo al que el Teniente de Alcalde más está criticando y con el que más duro está siendo. Entiendo que eso será porque algo hacemos bien o porque lo hacemos rematadamente mal todo. Él verá.

### **EH-Bildu Leioa Udal Taldeko Aritz Tellitu Zabala jaunaren esku hartzea.**

Dena sintetizatzen ahaleginduko naiz.

Lehenik eta behin, Sabino Arana oinezkoentzat egitearekin, ni ezin naiz desadosago egon PPK esandako elementuekin. Justu bi herri ditugu inguruan kontrakoa erakusten digutenak, ez dugu inora joan behar. Erandio eta Getxo hortxe daude, eta egia da ostalaritza hobetzen dela, gauza positiboa da, baina merkataritza ere hobetzen da. Batak bestea hobetzen du. Batzuetan ahazten duguna da zerk kaltetzen duen herriko merkataritza. Ez dira oinezkoentzako kaleak. Leioan beste eredu batzuk dauzkagu kaltetzen dituztenak, gure inguruan agertzen ari diren azpiegitura erraldoi horiek, alegia. Badira ere egungo aldaketa teknologikoez suposatzen duten erosketa ereduak. Horrekin ere, gure estrategiak birpentsatu beharko dira merkataritza bultzatzeko. Baina uste dugu oinezkoentzako kalea aukera bat izan daitekeela bestelako merkataritza bat bultzatzeko, bestelako bultzada bat emateko. Horretarako oinezkoentzako egitea ez da nahikoa. Gero beste politika batzuk egin beharko dira merkataritza horri ere laguntzeko. Dena osotasunean hartuta, espero dugu egoerari buelta ematea.

Ibanek aipatutakoarekin, eta askotan agertzen dena; oraingoan parte-hartzea izan da, baina aurrekoan etxebizitza ereduak izan da. Bai, EH Bildutik ez zaigu nahikoa iruditzen. Ados gaude, lehen gutxiago egiten zen, eta poztan gara gure presioari edo guk egindako kritikei esker orain parte-hartzea ere bultzatzen hastea. Aurrekoan etxebizitzekin esaten zenuten: “*Lehen EH Bildutik etxebizitza sozialak eta publikoak eskatzen zenituzten, egiten hasi ginen eta gutxi iruditu zitzaizkizuen. Gero*



*etxebizitza sozialak eskatzen zenuzten...*”. Bada bueno, pozten gara ikusita zuek ere oposiziotik planteatzen genituen elementuak aurrerapauso bat suposatu ahal zutela. Uste dut horrek ere erakusten duela oposizio eraikitzaile bat egin izan dugula eta egiten jarraituko dugula.

Bereziki hausnarketa egin nahi nuen elementu batean, uste dut diskurtsoaren oinarria izan dela bere osotasunean: oposizioan oso erraza dela, oposizioan zergak kentzea proposatu ahal dugula, hainbat eraikin egitea... Aldarrikatzen dugu seriotasunez egiten ditugula gure proposamenak eta kontuan hartzen ditugula udal batek dituen zailtasunak. Tasa eta zergen eztabaidan esan genuen: Ez gaude igoeren aurka balditza orokor moduan. Guk esaten genuena da aztertu beharko dela zerga bakoitza. Baina esaten genuen baita ere Leioak duen presioa ez dela handia, eta beraz, igotzeko aukera genuela zerbitzu publikoak duintzeko bidea hori izango balitz. Uste dut horregatik ere defendatu genuela eta ez genuela erabili udal gobernu taldearen aurka erabili zergen igoera hori. Beraz, uste dut ere ez dela egokia guri kritika hori egitea orain, izan ere, badirudi egiten ditugun proposamenak errealitatetik kanpo bizi direla.

Berdina proposatu da kirol instalazioekin. Badirudi Pinosolo bat planteatzen genuela auzo bakoitzean. Behin eta berriro azaldu dugu gure proposamena, ordea. Hala ere, argi gelditu dadin azalduko dut: guk proposatzen dugu kirol taldeentzako instalazio duin bat, Pinosolo izan daitekeena, eta proposatzen dugu Gasteizeko ereduaren moduko instalazioak jartzea auzo desberdinetan, argi eta garbi ez Gasteizen tamainan bezala. Badakigu Leioan gaudela eta ez Gasteizen. Baina uste dugu, adibidez, erdigunean igerileku batek eta kirola egiteko bestelako instalazio batek bizitza eman ahal diotela erdiguneari, eta bizitza horrek merkataritzari lagundu, eta bestelako kirolak egiteko aukera ematea Lamiakon, Pinuetan, Txorierrin eta bestelako auzo guztietan. Uste dugu hori bideragarria dela. Izan ere, emendakinen bidez eztabaidatzen genuenean, komentatu genuen, adibidez, Pinuetan aukera hori sortu zitekeela, Lamiakon kultur etxean ere horrelako espazio bat sor genezakeela... Nire ustez, gure proposamena ez da horren urrun geratzen errealitatetik.

Gero, etxebizitzak daude, beste elementu bat. Gu ez gaude etxebizitzak eraikitzearen aurka. Ez da totem mugiezin bat. Guk kritikatzeko proposamen honetan da erdiguneak hartzen duen dentsitatea altuegia dela gure ustez. Hori da egin dugun kritika. Uste dugu beste banaketa bat egin daitekeela. Hori da egiten dugun kritika. Leioak hartzen duen dentsitatea eta handitze maila handiegia dela. Beraz, hori da kasu konkretu honetan kritikatzeko genuena.

Bestalde, Alderdi Popularrak aipatutako adibidearekin, etxebizitza komunitarioa alegia, gazteentzako 50 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza horiek... Nik uste adibide interesgarriagoak badaudela Euskal Herrian ere gure tamainako udalerritan ere. Uste dut gaztea izategatik ere alokairuzko etxebizitza bat edukitzeko eskubidea bermatzeko, etxebizitza horrek ere duina izan behar duela, ez duela zertan etxebizitza txiki bat izan behar. Uste dugu, adibidez, Erreterian aukera hori egon dela. Prozesu parte-hartzaile baten bitartez, gazteentzako alokairu soziala eta komunitarioa egin da, eta gazteek kudeatuko dituzte hainbat elementu. Adibideak, eta hor Alderdi Popularrak arrazoia zuen, eman daitezke, ereduak bilatu, eztabaidatu dezakegu. Baina arrazoia zuen: Udalerritik ere aukerak daude alokairuzko etxebizitza sozialak egiteko. Guk uste dugu horretan temati jarraitu behar dugula berau lortzeko.

